

PEDRO J. COLOMBO

Komiki marrazkilaria

Imajinatzen
duzu Zorrotza
merkataritzarik
gabe?

Baduzu eskaintzarik
onena Zorrotzatik
irten barik

ZAINDU TOKIKO MERKATARITZA

EROSI AUZOAN!



LOR<LDIA FESTIBALA



EUSKAL KULTURA GARAIKIDEAREN FESTIBALA

11. EDIZIOA | 2025 | BILBON
MARTXOAK 10-30

MUSIKA | TEATROA | BERTSOLARITZA | DANTZA | BERBALDIK | PERFORMANCE
LITERATURA | IBILBIDEAK | IKUS-ENTZUNEZKOAK | ZINEMA

SARRERAK: LORALDIAFESTIBALA.EUS

Bobesleok:



Ekolozioa:



!Kasi
Mi Kasi!

0-18 urteko heziketa-ibilbide osoa,
ikastetxe publikoetan eta
Zorrotzatik irten gabe

 IZP (IKASTETXE ZUZENDARITZA PUBLIKOAK)
Pinadia etbaldea, 6. 48013, Zorrotza, Bilbo
☎ 94 442 48 75
✉ zuzendaria@zazpiandreskola.eus

 IZP (IKASTETXE ZUZENDARITZA PUBLIKOAK)
Ikastalde etbaldea, 12. 48013, Zorrotza, Bilbo
☎ 94 442 00 21 • ☎ 94 442 00 21
✉ 014159aa@hezakuntza.net

 IZP (IKASTETXE ZUZENDARITZA PUBLIKOAK)
San Miguel auzunea, 10. 48013, Zorrotza, Bilbo
☎ 94 439 33 34 / 688 861 374
☎ 94 439 97 41
✉ 015078aa@hezakuntza.net
www.leszorrotzabhi.hezakuntza.net

ZM

ZORROTZ MORROTZ
Zorrotzako herri aldizkaria

92. alea, 2025eko martxoan

www.zorrotzmorrotz.eus
zm@zorrotzmorrotz.eus
@ZorrotzMorrotz
@zorrotzmorrotz
@zorrotzmorrotz

Argitaratzen du:
Zorrotzako Euskal Txokoa

Erredakzioa:

Ibai Barrios
Ainara García
Igor Gutiérrez
Aitor Marín
Naroa Peña
Iratze Pérez

Laguntzaileak:

Manu Cobo
Asier Urkiza

Koordinazioa:

Naroa Peña

Diseinua eta maketazioa:

Aitor Marín. (amc diseinua)

Zuzenketak:

Alaitz Aldabaldeireku

B Zorrotz Morrotz aldizkariak Bilboko udalaren diru-laguntza jasotzen du. Edukiaren erantzule bakarrak ZM bera eta kasuan kasu, testuaren sinatzaileak dira.

Bilbao
EUSKAL
HERRIKOA

sarrera

Erantzukina, irmotasuna, jarraitutasuna eta parte hartzea

Zorrotzako Herri Mugimendua ezaugarri nagusiak beti izan dira erantzukizuna, irmotasuna eta jarraitutasuna. Eta horrela jarraitzen dugu.

Jende askok bere lana, dedikazioa eta ilusioa eman ditu Zorrotza guztiontzat auzo hobea izan dadin. Gure aurreko guztiak gogoratu nahi ditugu, batez ere gure artean ez daudenak.

Urte hauetan guztietan, asko baitira, hobekuntza nabarmenak lortu dira, eta bide horretan jarraituko dugu. Jarraitutasunaz ari garenean, behingoz Sader-Profersa gure auzotik behin betiko ateratu dadin, zein FEVEren lurperatzea egia bihurtzeko pertseberantziaz ari gara. Eta baita beste hainbat kontuz ere, besteak beste, auzoan aparkaleku ezaren arazoa konpontzeaz. Ondo baino hobeto dakigu zenbat denbora behar dugun edozein aldarrikapen lortzeko, baina inork ez dezala zalantzarik izan eran-

tzukizunez eta irmotasunez lan egiten jarraituko dugula.

Parte-hartzeari buruzko hausnarketa egin nahi dugu. Egia da Zorrotzak elkarte-sare zabala izan duela eta baduela; auzotik kanpoko eragileek hala onartzen dute, eta askotan errefereente izaten gara haientzat. Horrek harro egoteko arrazoia izan behar du; baina, aldi berean, ildo horretan jarraitzeko pizgarria ere izan beharko luke. Horregatik dei egiten dizuegu auzoko bizitza sozialean parte har dezazuen, bakoitzak dituen aukeren eta gusturen dagoen eremuan. Arreta jarri kultura-, aisialdi-, edota kirol-ekitaldietarako deialdietan, gizarte-deialdietan azken batean. Eta batez ere, Osakidetzaren egoera edota Sader-Profersa bezalako gai garrantzitsuei buruzko deialdi espezifikoetan.

Auzo guztiok gara, eta guztion artean egiten dugu. Zorrotza Aurrera!



13 urte

ZORROTZA F.C.
kirolarekin,
auzoarekin eta
euskararen alde!

VIA gráfica

viagraficzorrotza@gmail.com

Disenua

Lápices
LIBURVENDENA

Untziola kalea, 8
ZORROTZA



Eusko Jaurlaritzak Saderren egindako azken ikuskapenak bost “desbideratze” aurkitu zituen

Enpresaren ustez, “garrantzi gutxiko” arazo horiek airearen kalitateari, usainei, urei, hondakinen kudeaketari eta pitzadurei lotuta daude.

Azaroaren amaieran egindako ikuskapena programatua izan zen, hau da, Saderrek bazekien ikuskapena egingo zela.

TESTUA ETA ARGAZKIA: AITOR MARIN

Eusko Jaurlaritzak azaroaren amaieran Saderren egindako ingurumen-ikuskapen batek bost “desbideratze” aurkitu ditu lantegiaren funtzionamenduan, Adolfo Uriarte Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketara Egokitzeko zuzendariak Xabier Caño Saderreko eta Agaleus taldeko arduradun nagusiari urtarrilaren 14an bidalitako gutun

baten arabera. Gutun hori argitaratu atera da Eusko Jaurlaritzak Legebiltzarrean aurkeztuta, oposizioak hala eskatuta. Txosten hau sortu duen azaroan izandako, eta orain arteko azken ikuskapena, modu “programatua” egin zen; hau da, Saderrek bazekien egingo zela eta noiz egingo zen.

Arazo horiek airearen kalitateari, usainei, urei, hondakinen kudeaketari eta lantegiko nabe batean agertutako pitzadura batzuei buruzkoak dira. Zehazki, airearen kalitateari dagokionez, “hondakinak transferitzeko zentroaren inguruan lausoak” zeudela ikusi zen. Xehetasunez, “haizea altxatzen denean, haizeak hauts beltzaren hondarrak altxatzen ditu, eta hauts horiek fatxadako irekieretatik irteten dira eta kaiko zolarriaren gainean bukatzen dute”. Usainei dagokionez, Ingurumen Sailak egindako ikuskapenak aurkitu du “arriskutsuak ez diren likidoak deskargatzeko hobiak ez duela estalkirik”. Saderrek, aldiz, estalkirik edukitzera behartuta ez da goela baieztatzen du.



Uren tratamenduari dagokionez, ikuskapenean irakur daiteke “emari-neurgailua kalibratu egin dela, baina ez dela jaso kalibrazio-ziurtagiririk”. Txostenak berak baieztatzen duenez, fabrikak “pitzadura batzuk ditu nabearen sarrerako zolan”, eta, azkenik, azpimarratzen da, halaber, azken urteetan, ezaguna zen bezala, hondakin “arriskutsuen” sarreraren baimendutako kopurua gainditu zela.

“Desbideratze” horiek “garrantzi gutxi-ko” kategoria dute. Ingurumen-irregulartasunetan, lau gradutik txikiena da hau. Beste komunikabide batzuei egingdako adierazpenetan, Saderreko arduradunek enpresa “desbideratze” horiei erantzuten eta “hobekuntzak” egiten ari dela adierazi dute. Era berean, azpimarratu dute txosten horiek ez direla “azken ebazpena”, Saderrek egingo dituen alegazioen mende daudelako, eta halaber, ziurtatu dute arazoak konponduko direla “egiaztatuta geratuko dela”.

Alegazioak aurkeztu dituzte Sader eta Profersa Zierbenan ezartzeko proiektuaren aurka

A. M.

Getxoko Alderdi Popularra izan zen alegazio horiek aurkeztu zituen lehena, eremuko haizeak direla eta, Getxo udalerrira kalteturik handiena izango zela argudiatuta. Ondoren, Elkarrekin Podemosek jakinarazi zuen hamar alegazio erregistratu zituela Eusko Jaurlaritzan, besteak beste portuan erregulazio-plan berezirik ez dagoela, zaratei buruzko dokumentazioaren zehaztasuna eskasa zela, edo portukoa ez den jarduera bat dela argudiatuta.

Getxoko Udalak ere alegazioak aurkeztu ditu, eta bertan alternatiben eta ingurumen-bermeen azterketa «sakonagoa» egiteko eskatu du, “herritarrengan eta ingurunearengan inolako eraginik izango ez duela” ziurtatzeko. Bestalde, Santurtziko Udala izan da alegazioak aurkeztu dituen azkena. Proposatutako kokapena ez dela egokia erabilera industrialerako azaldu dute, “Saderrena ez baita portu-erabilera bat”. Saderrek gure auzoan izan duen gaitzespena ere nabarmendu dute, “Santurtz in errepikatu litekeen arazoa”. Alegazio horietan azpiegitura hori kokatzeko beste aukera batzuk aztertzeak eskatzen da, eta guztietan aipatzen da Artigasen, Zabalgarbiko erraustegiaren eta TMBren artean, dagoen lurzati bat.

Agaleusek «erabat gezurtatu» du portuan instalatzea aurreikusita duen Agaleus Circular Thinking proiektua industria-prozesuarekin lotutako kutsadura-fokua izango den ustea. Gainera, Sader lekuz aldatuko dela ere gezurtatu du, «enpresak Zorrotzan amaituko baitu bere jarduera».

Ricardo Barkala Portuaren Agintaritzako presidenteak adierazi duenez, portuak “ondo eta egingarri ikusten du” proiektuaren kokapena. Behin Portu Agintaritzak hirigintza-alderdiak eta Portuak berak eskatutako baldintzak aztertu eta onartu ondoren, orain Eusko Jaurlaritzak aztertu behar du ingurumen-izapidetzea. Barkalaren arabera, txosten hau baiezkota izango da, eta Portuak “aurrera egingo du prozesuarekin”.



Zirgarien kaian parke berria eraikitzen ari diren lurzoru kutsatua lurrez estaliko da, garbitu beharrean

Udalak onartu du analisiek “kutsadura-maila nabarmena” erakutsi dutela, baina Eusko Jaurlaritzaren ingurumen-araudiak jarduera hori baimentzen duela adierazi du.

TESTUA ETA ARGAZKIA: AITOR MARIN

Bilboko Udala parke berri bat eraikitzen ari da Chimbo xaboi fabrika izan zen orubeko aparkaleku zaharrean. Orube horretan, asfaltoaren azpian kutsadura zegoen, eta kutsadura hori lurrez estali da parkeak izango dituen berdeguneak eta kirol- eta aisialdi-ekipamendu guztiak jartzen hasi aurretik.

Elkarrekin Podemoseko udal taldeak galdera bat erregistratu zuen udal gobernuari azalpenak eskatzeko, jakiteko zergatik erabaki den kutsatutako lurzoruak lurperatzea kendu beharrean, Zorrotzaurreko obran egin duten bezala. Gainera,

Elkarrekin Podemosek, otsaileko osoko bilkuran, kutsadura soilik estaltzen duten neurrien aurrean, lurzoruen saneamendua eta lehengoratzea lehenes- tea eskatu du.

Kepa Odriozola Herri Lanetako zinegotziak erantzun du Eusko Jaurlaritzaren ingurumen-araudiak jarduera hori baimentzen duela, nahiz eta onartu lurzoruek kutsadura-maila esanguratsua dutela. Zinegotziak bere erantzunean argudiatu du kutsatutako lurzoruak zabortegi batera erretirtzeko erabakia kutsaduraren mailaren eta motaren arabera dela, baita lurzorua azken erabilera- ren arabera ere.

Barrutiko batzorde soziokulturalak “La Landa” proposatu du parke berria izendatzeko

A. M.

Auzo Elkarteak egindako proposamena da, eta Zorrotzako bizitza sozialari historikoki lotutako izen herrikoa dela argudiatu dute aukeratzeko (ermita, eskolak, garbitokia, ospakizunak eta hainbat jarduera...).

Izen horrekin, birsortutako espazio berrian topaleku izaera hura berreskuratu nahi da. Aho batez onartuta, proposamen hau Alkatezari helaraziko zaio orain, behin betiko onar dezan. Hala ere, Udaleko Euskara Zuzendaritzak “Landa” hitza mantentzea gomendatzen du, “La” artikulua kenduta, izena euskaraz izan dadin.



Espaloi berriak eta zabalagoak Usandizaga musikaria kalean

ZORROTZ MORROTZ

Bilboko Udalak otsailaren hasieran hasi ditu Usandizaga Musikaria kaleko espaloiak berritzeko eta handitzeko lanak. Ekintza horren ondorioz, aldapan zeuden zazpi aparkalekuak kendu egingo dira.

Obren aurrekontua 175 mila eurokoa da, eta maiatzaren amaierarako amaituta egotea espero da.

Punta Zorrotzako ikus-entzunezko "hub"ak ez du inolako aurrerapausorik izan

Udalak 2024ko hasierarako iragarri zuen bere lizitazioa

ZORROTZ MORROTZ

Bilboko Udalak azken hauteskunde-kanpainan iragarri zuen Punta Zorrotzarako ikus-entzunezko poloaren proiektuak ez du inolako aurrerapausorik egin. Gure aldizkariaren 83. alean jasotako informazioan, Ekonomia Garapen, Turismo eta Merkataritzako zinegotzia den Xabier Ochandianok adierazita, Udalak

aurreikusten zuen Punta Zorrotzako ikus-entzunezko "hub" a 2027an prest egongo zela. Ale berean, Udalak 2024aren hasieran zerbitzu-emakida lizitatzeko asmoa zuela ere jasotzen du. Baina urtebete beranduago, ez da lizitazio horren berri, eta antza, behintzat epe motzean, ematen du ez dela gauzatuko. Udalak ez du eman atzerapen hau azaltzeko inolako azalpenik. Punta Zorrotzako plan urbanistikoa oraindik onartuta ez badago ere, teoriarik egin milaka metro karratu baino gehiago gordeta daude proiektu honetarako.

Azkenaldian gure auzoko inguru honetan hainbat filmaketa egin badira ere, badirudi proiektu honek, oraingoz, itxaron egin behar duela.

ehbildu

STORKIZUNA DA ORAIN

Esperantzaren nazioa.



ASKABIDE ZORROTZA

// Oso gustuko dut Zorrotzan dagoen auzo-giroa //

MARCELA VERGARA

Jaiotokia: Pereira (Kolonbia)
Noiztik Euskal Herrian: 2020tik.
Adina: 40 urte
Lanbidea: Eskola jantokiko garbitzailea.

2018an Kolonbiatik atera zen Marcela beretzat zein bere semearentzat etorkizun hobere baten bila. 2020an Zorrotzara heldu zen, hemengoa den eta egun bere bikotekidea denarekin batera bizitzera. Txinbotarrak konpartsaeko ekintzetan parte hartzen du eta auzoko giroa oso gustuko du



TESTUA ETA ARGAZKIAK: AITOR MARIN

Nola eta zergatik etorri zinen hona?

2001ean, 17 urte nituela, Galiziara iritsi nintzen lehenengo aldiz. Urtebete eta zerbat egin nuen, baina senide baten gaixotasunagatik Kolonbiara itzuli nintzen. 2018an, berriro saiatzea erabaki nuen. Aukera berrien bila eta segurtasun faltatik ihesi iritsi nintzen. Seme bat nuen, eta etorkizun hobea nahi nuen, bai harentzat, bai niretzat. Hasieran Madrilerara iritsi, eta gero Galiziara joan nintzen, han zegoen Kolonbiako jendea ezagutzen nuelako. Galizian ezagutu nuen eta hemen bizi zen lagun bati esker iritsi nintzen Zorrotzara. Raúl, nire bikotekidea, ezagutu nuen ondoren, eta 2020an Barakaldon kokatu nintzen lehenik, Zorrotzara berarekin bizitzera etorri nintzen arte. Hasieran, Galizian harritu ninduen ni egon nintzen herriko bizitza urriak. Madrilen, kontrakoa gertatu zen, hain hiri handiak estutzen ninduen... Hemen zerbaite orekatuagoa aurkitu dut, oso eroso sentiarazten nauena.

Hemengo ohituretara moldatzea kostatu zitzaizun?

Egia esan, ez. Ez nuen alde handirik nabaritu. Euskaldunak Kolonbiako jendea eta espero

nuen baino irekiagoak zarete. Izugarri harritu ninduen tabernetan zenbat sozializatzen den! Kolonbian hori bakoitzaren etxean egiten da. Hemen tabernetan, jatetxeetan... geratzen da. Hori berria zen niretzat.

Hemengo eta zure jatorrizko bizimodua oso ezberdinak dira?

Bai, gehiegi. Izugarri baloratzen dut hemen daukadan lasaitasuna. Garbitasun, gizalege eta ordena handiagoko dago. Adibidez, Kolonbian autobusean sartzeko zein iriteteko borroka modukoak sortzen dira.

Zein da zure gaur egungo lanbidea?

Ikastetxe bateko jantokiko garbitzailea naiz. Jantokiko begiralea ere izan naiz. Migratu aurretik, jatetxe batean egiten nuen lan.

Orduan gastronomiaz hitz egin dezakegu...

Bai, jakina. Hemengo janaria eta amaginarrebak egiten dituen platerak maite ditut. Etxean "fusio-janaria" izeneko kontzeptu bat garatu dugu: hemengo gastronomiako platerak egiten saiatzen naiz, kolonbiar erara egokituta. Eta, batez ere, errezeta kolonbiarrak egiten ditut, hemengo produktuetara egokituta.

“ Izugarri harritu ninduen tabernetan zenbat sozializatzen den! Kolonbian hori bakoitzaren etxean egiten da

Zelako harremana daukazu euskararekin? Zer edo zer ikasi duzu? Erabili ahal izatea gustatuko litzaizuke?

Hona iritsi arte existitzen zenik ere ez nekien. Begirale lanetan oinarritzko gauza batzuk ikasi ditut. Gustura ikasiko nuke, izugarri estimatzen baitut bertako hizkuntza indartzea, nahiz eta aitortu behar dudan oso zaila iruditzen zaidala noizbait hitz egin ahal izatea. Nolanahi ere, oso garrantzitsua iruditzen zait hitz egitea eta erabilera indartzea. Horregatik, nik ezin nuenez nire semeekin hitz egin, txikia haurreskolan matrikulatu genuen, txiki-txikitatik has zedin ikasten.

Zer da Zorrotzan gehien gustatzen zaizuna?

Denetarik dago eta denetarik aurkitzen dut. Baina, batez ere, azoko bizitza, kultur giroa, mugimendua oro har, eta herritar guztien parte-hartzea antolatzen den guztian.

Aipatutako jardueretan parte hartzen duzu?

Bai, adibidez, Txinbotarraken konpartsakidea naiz. Sinestezina iruditzen zait horrelako mugimendu bat egotea, trukean ezer espero gabe lan egiten duena... Hasieratik harrapatu ninduen eta ahal izan dudan guztietan parte hartu dut. Iaz, Txinbotarrak Kastrexanako jaietan txosna kudeatzeaz arduratu zenean, sukaldari aritu nintzen eta Kolonbiako plater tipiko bat egin nuen. Umeen ikastetxeko hazkuntza-eskolan ere parte hartzen dut, espe-rirentziak partekatuz. Eta gainera, Zorrotza Futbol Clubeko bazkidea naiz, nahiz eta oso futbolzalea ez izan, partidetan sortzen den giroa gustatzen zait eta.

Kolonbiara bueltatu zara inoiz?

Birritan. Bidaiatzeko erraztasuna dugu, nire bikotekideak airelinea batean lan egiten du eta horrek ikaragarri errazten du itzuli ahal izatea.



Aldaketarik nabaritu duzu?

Gauza gutxi. Lehengo giro bera da. Hemen bizi naizen lasaitasunera ohituta, beldur pixka bat dut handik ibiltzeko. Adibidez, sakelakoa kalean atera behar badut, edo dirua kutzazain batean, ez dut egiten hemen nagoe-nean egiten dudan lasaitasun berarekin.

Bertako zerbait duzu faltan inoiz?

Kalean, etxe aurrean, egiten diren erreak. Han asko irteten ginen mendira janaria prestatzera eta arunta da etxetik kanpo janaria prestatzea. “Paseos de olla” esaten diogu horri. Uste dut horretan batzuetan faltan dudan klima tropikalak ere eragina izango duela. Han hotz gutxiago eta eguzki gehiago egiten du.

Posiblea litzateke noizbait berriro Kolonbiara itzultzea?

Ez. Egia esan, ez. Hango nire familiak badaki nire lekua hemen dagoela eta hara bisitan bakarrik itzuliko naizela. Bikotekidearekin bizi naiz eta familia hemen sortu dut: 12 urteko semea daukat, Kolonbiatik nirekin etorritakoa baina dagoeneko beste inor baino Athletic zaleagoa dena; eta bigarren seme bat, Julen, hiru urtekoa, jada hemen jaioa.

Kontrainformaziorako leiho bat



Duela hiru urtetik hona, pertsona talde bat Zorrotzako NATOren Aurkako Taldearen izenean antolatzen da, diskurtso ofizialarekiko kontzientzia kritikoa sortzeko helburuarekin. Geroztik, hainbat hitzaldi antolatu dituzte auzoan, eta bizilagun asko eta beste leku batzuetako jendea ere erakarri dute.


TESTUA: AITOR MARIN
ARGAZKIAK: ZORROTZAKO NATOREN AURKAKO TALDEA

Duela hiru urte, Errusiak Ukraina inbaditu eta Ukrainako gerra deiturikoa hasi zuen. Hala ere, hainbat ahotsek aldarrikatzen dute gatazka urte batzuk lehenago hasi zela, Donbassen, Ukrainako sektore eskuindarrekin 2014ko estatu-kolpea eman ondoren. Testuinguru horretan, gerra salatzeke, baina oso bestelako ikuspegi batez, NATOren politiken aurkako manifestazio bat antolatu zen Bilbon. Auzoko hainbat pertsonak bat egin zuten mobilizazioarekin eta “komunikabide konbentzionaletan nagusi den diskurtso ofizial”aren aurkako kontzientzia kritikoa sortzen saiatzeko, geratzen eta antolatzen hasi ziren.

Behin antolatuta, beren jarduerari ekin zioten, eta *Zorrotzako NATOren Aurkako Taldea* izena hartu zuten, “inor kontuan hartu gabe”. Izan ere, Bilbon bazegoen NATOren aurkako plataforma bat. “Gure jarduera ikustean, gu-

rekin harremanetan jarri ziren”, eta, ordutik, materiala eta informazioa ematen diete. Hala ere, Bilboko taldearekiko beraien independentzia defendatzen dute. Talde honetako pertsona batek Bilboko plataforman parte hartzen badu ere, “informazioa eta materialak helarazten ditut, baina gure asmoa ekimenak auzoan eta auzoarentzat egitea da”.

Kartel, pankarta, elkarretaratze eta hitzaldien bidez, “kasu askotan lehen eskutik”, beste ikuspuntu bat ematen dute, urrune-koak diruditen arren, “guri ere eragiten diguten” gatazka eta gaiak buruz. Izan ere, talde honek defendatzen duenez, NATO munduko armamentu-lasterketaren bultzatzaile handiena da, eta eskalada militar hori inflazioaren, soldada-izozteen edo murrizketa publikoen erruduna ere bada. “Onartezina da langile klaseak ondorio horiek guztiak jasaten dituen bitartean gastu militarrek gora egiten jarraitzea”.



Propaganda eta hitzaldiak

Bere jarduerarik ohikoena kartelak jartzea edo hitzaldiak antolatzea izan dira. Gastuak ordaindu ahal izateko, gaur egun taldeko militantek kuota txiki bat ordaintzen dute, eta geroztik, modu apalean eta zailtasun ugari gaindituz, aurrera jarraitzen dute propaganda lanarekin. “Langile klaseko pertsonak gara, eta guztiok elkartzeko egun bat aurkitzea da gainditu beharreko lehen zailtasuna”.

Orain arte, sei hitzaldi antolatu dituzte auzoan, arrakasta desberdina, baina esan-guratsuarekin. Lehenengo hitzaldia Donbaseko egoerari buruzkoa izan zen, Asier Blas eta Jon Cortazar hizlari zirela. “Ez genuen diru askorik, eta ezagun batek dohainik egin zizkigun eta kalean jarri genituen berrogei kartelen gastua ordaindu genuen”. Horrekin antolatu zuten lehen solasaldia, hogeita hamar lagun inguru bildu zituen. Ondoren, beste batzuk etorri ziren, Pablo González kazetariaren egoerari buruz, emaztearen eta “Free Pablo” laguntza-plataformako beste pertsona baten parte-hartzearekin; Palestina, Siria eta Bielorrusiako egoerari buruz edo Gerrillari Heroikoaren Egunaren ospakizunari buruz, eta Guevara pertsonalki ezagutu zuen eta bere kide izan zen Kubako Alderdi Komunistako kide baten presentziarekin.

Kasu askotan, sare sozialei esker, beren hitzaldietara joaten diren gehienak kanpotik etorritako pertsonak izaten dira. Hala ere, ia ekitaldi guztietan, gutxienez auzoko hamar bat bizilagun egon direla diote, taldetik

Taldearen jarduerarik ohikoena kartelak jartzea ala hitzaldiak antolatzea izan dira

kanpokoak. “Barakaldoko kideek zoriondu egin gaituzte, haiek ez dutelako lortu ehun mila biztanleko Barakaldo bezalako udalerriri batean hamar pertsona mugitzea. Bost edo hamar bizilagun horrelako hitzaldietara joatea oso aipagarria da”. Kontrainformazioa zabaltzen saiatzeaz gain, jarduera horiek oso aberasgarriak direla diote “hitzaldi eta eztabaidek gu geu ere elikatzen gaituztelako”.

Etorkizunean bide horretatik jarraituko dutela agindu dute, kontrainformazioari arrakala bat irekiz eta “diskurtso ofizialaz” bestelako ikuspuntuak eskainiz.

PEDRO J. COLOMBO

Komiki marrazkilaria

“*Hemeretzi urte nituenetik ez zait inoiz lanik faltatu*”



TESTUA: IGOR GUTIÉRREZ
ARGAZKIAK: AITOR MARÍN

Sorpresa ederra hartu genuen gure auzoan komiki marrazkilaria bat bizi zela deskubritu genuenean.

Baina sorpresa bikoitza izan da bere emaztea, berarekin batera lan egiten duena, Zorrotzako betiko auzokidea dela jakin dugunean.

Pedro eta Aintzane beraien umea Zazpilanda eskolara eramaten dute eta ikastetxetik metro eskasera daukate beraien estudioa.

Nola definituko zenuke zure lana?

Marrazkilaria naiz, komikietako marrazkilaria batik bat. Nire emaztea, Aintzane Landa, kolorista da. Lan askotan biok batera aritzen gara. Bera Zazpi Landa auzokoa da betidanik; ni, berriz, Granollersekoa.

Zer ikasi zuenuen?

Arte Ederrak ikasteko sarbide proba suspenditu nuen eta urtebete eman nuen Psikologian, denbora alferrik ez galtzeko. Hurrengo urtean, berriz, Bartzelonako JOSO komiki eta arte grafikoetako eskolan izena eman nuen. Generalitateak homologatutako eskola bat da, Kataluniako komikilari gehienak eta Espainako asko ere bertatik atera dira. Bineta-ilustratzaile masterrean sartu nintzen, baina hori ere ez nuen bukatu, kurtso amaiera baino hilabete lehenago lana atera zitzaidalako eta ez nituelako azken lanak entregatu. Beraz, inolako titulaziorik gabe atera nintzen. Hemeretzi urte nituen eta hortik aurrera ez zait inoiz lanik falta izan.



Blog: www.pedrojcolombo.com

X: @MINUCIAS_RJ_AI

Instagram: @pedrojcolombo

Portfolio: www.pedrojcolombo.wixsite.com/portfolio

Pedro J. Colombo 1978an jaio zen Granollersen (Katalunia). Txikitan Spiderman edo Silver Surfer bezalakoak izan nahi zuen. Laster konturatu zen hori ez zela posible, eta, beraz, antzik handiena zuenari ekitea erabaki zuen: komikigile izateari hain zuzen ere. Bartzelonako Josu Komiki Eskolan ikasi zuen 3 urtez, eta bertan ezarri zituen gaur egun bere marrazketa-oinarriak direnak. Han ere Frantzia-Belgikako BDarekin (Bande dessinée frantsesez) harremanetan jarri zen, eta horrek Marvelentzat edo DCrentzat lan egiteko asmoak alboratzea eragin zuen. Harrezkero, bere proiektuetan zentratu zen. 2001ean, "Sangre Noctámbula" bere lehen obra osoan murgilduta zegoela, egun bere emaztea (eta kolorista) dena ezagutu zuen, Aintzane, eta Granadara joan ziren bizitzera. Elkarrekin hainbat komiki eta testuliburu landu dituzte merkatu frantziar-belgikar, ingeles, estatubatuar, australiar eta espainiarrarentzat.

Bere lana BD merkatuan oinarritu da. "Trois... Et l'ange"ren 3 liburuki argitaratu ditu Morvanen gidioekin Dargaud-Beneluxentzat. Harekin istorio labur bat ere egin zuen Delcourtentzat "Les Chroniques de Sillage"ren 3. liburukian. Josep Busquet gidoiariarekin, berak eta Aintzanek 3 album egin dituzte: "Khaz", "En Segundo plano" eta "Addiction". Horretaz gain, oraindik hogeit hamar proiektu baino gehiago dituzte egunen batean argitaratzeko zain. "Le photographe de Mauthausen" izan da Salva Rubio gidoiariarekin izan duen lehen kolaborazioa. Obra hainbat herrialdetan argitaratu du Norma Comicsek.

Zorrotzan kokatuta, gaur egun, Frantziako Olympique de Marseille futbol taldearen "Droit au But" serie ofizialeko arkatzez arduratzen da Aintzane Landarekin batera. Bere azken bi lanak Fito Cabralesen bizitzari buruzko "Y por supuesto la luna" eta El Gran Wyomingi buruzko "Mil palos y ninguno al agua" dira, biak BAO edizioak argitaletxeak kaleratuak.

Zein izan zen zure lehenengo lana?

JOSO eskolak lortu zidan lehenengo lana, Bartzelonako marrazki bizidunetako estudio batean. Bertan hilabete eta erdian bi laburmetrai egin nituen eta utzi egin nuen, estudioa OPUSekoa zela ohartu nintzenez. Gainera, ordurako banuen beste kontratu bat nik neuk sortutako komiki bat argitaratzeko.

Zein zen komiki hori?

"Sangre noctámbula" izeneko albuma da, Bartzelonan giroturiko banpiro-istorio bat. Gidoia, marrazkiak eta kolorea nik egin dakoak dira. Kontua da Granadako Komiki Azoka batean zirriborro batzuk erakutsi niziola argitaletxe bati eta handik gutxira deitu zidatela hura ekoizteko. Hasiera batean, trilogia bat izango zen; baina, azkenean, lehen alea baino ez genuen egin, beste lan poto-loago bat ateratzaidalako. Berrogeita sei orriko albuma argitaratu genuen, akuarela koloreztatua.



Nora joan zinen gero?

Gidoilari frantziar batek deitu zidan Dargaud [Asterix eta Obelixen ekoizlea] argitaletxe ospetsuarentzako sail batean lan egiteko, “Trois... et l’ange” izenekoa (“Hiru... eta aingerua”, euskaraz). Superbotere arraroak dituzten pertsona batzuen istorioa da, gaur egungo Parisen girotua. Lau album ateratzeko asmoa zuten, baina hiru besterik ez ziren argitaratu, hirugarrenaren salmenta eskasa izan zelako.

Lan luzeagorik izan al duzu ala denak izan dira urte gutxiokoak?

Bai, hamar urte baino gehiago daramatzat “Droit au but!” sailean lanean. Marsellako Olympique futbol taldearen komiki ofiziala da, talde horren zalea den mutiko baten istorioak kontatzen dituen. Oso komiki arrakastatsua da, dagoeneko 21 album argitaratu dira eta 11. zenbakiaren berrehun mila ale

Pedro J Colomboren hainbat liburu. “En segundo plano” liburuan Zorrotzako eszena batzuk agertzen dira





saldu ziren! Sail horretarako nire lehen lana 12. zenbakiaren azala izan zen. Ondoren, 13. zenbakiaren kolorea egin nuen eta 14. zenbakitik aurrera arkatzak [marrazkiak] egiten ditut. Nire emazteak kolorea egiten du.

Horrez gain zeintzuk dira esku artean dituzun lanak?

Tintaztatzailea naiz flandrieraz argitaratzen den sail oso ospetsu batean, “De Kiekeboes” izeneko. Marrazkilaria Charel Cambré da, berak bineten zirriborroak pasatzen dizkit eta nik lerroak burutu egiten ditut bere estiloa errespetatuz, hori da tintaztatzaile baten lana. Dagoeneko 4 zenbaki egin ditut sail horretarako.

Komikien mundutik aparteko ezer egiten duzu?

Orain pankarta bat diseinatzen ari naiz Mauthauseneko presoek omenez, kontzentrazio-esparruaren askapenaren 80. urteurrenerako egingo den agerraldi baterako. Preso horiekin erlazioaturiko elkarte memorialista baten enkargua da, Kordobakoa. “El fotógrafo de Mauthausen” (2018) albuma

“Hamar urte baino gehiago daramat Marseillako Olympique futbol taldearen komiki ofiziala egiten

sortzeko elkarlanean aritu ginen beraiekin. Arrakasta handiko komikia izan zen hori, aldi berean titulu bereko filma estreina-tu zelako. Aintzanez, albumaren koloreaz aparte, 3D maketa-digitalak ere egin zituen, marrazki lanetarako lagungarri gisa, kontzentrazio-esparruaren ikuspegi desberdinak izan nitzan.

Euskarazko lanen batean parte hartu al duzu?

Elkar argitaletxerako lan batzuk egin ditut, “Naia” izeneko trilogia esaterako. Euskara ikasleentzat propio eginiko liburuxka ilustratuak dira. Nahiko nuke euskarazko lan gehiagotan parte hartu.

// Marrazkilarion lana oso nomada da //

Nola ezagutu zenuten elkar emazteak eta biok?

Yahooko txat batean ezagutu genuen elkar, 2001ean. Ondoren, Aste Nagusi baterako Bilbora etorri nintzen Aintzane ezagutzera.

Noiztik bizi zara Zorrotzan?

2008an etorri ginen Zorrotzara. Lehen Granadan bizi ginen, marrazkilaria ziren lagun asko han genituelako. Marrazkilarion lana oso nomada da.

Gure auzoko zer duzu gustukoena?

Lasaitasuna eta dena gertu izatea. Etxe ondoan umearen eskola eta lantokia izatea luxu bat da.

Zenbat denbora ematen duzu orrialde bat bukatzeko?

Orrialdearen arabera, baina batez beste hiru bat ordu behar ditut.

Aurrerantzean zer lan egin nahiko zenuke?

Haurrentzako komikiak egin nahiko nituzke, nire semearentzat. Halaber, Bilbo apokaliptiko batean girotutako album bat egiteko asmoa daukat.



“Fito eta El Gran Wyomingen bizitzari buruzko komiki bana egin dut

“En segundo plano” albumean Zorrotza eta Bilboko eszenak agertzen dira

Lan propioei dagokienez, zerbait gehiago egin duzu edo egin nahiko zenuke?

Bartzelonako lagun mina dudana Josep Busquetekin eta nire emazte Aintzanarekin batera bi album argitaratu ditut: “En segundo plano” (2015) eta “Adicción” (2019). Lehenengoa Bilbon girotuta dago eta zerbait eszena Zorrotzan bertan gertatzen dira, esaterako, ambulatorioaren aurrean edo barraskilo zubian. Argazkilari bati buruzko istorio bat da, kaletik jendea iragazkiak ateratzen dizkiona eta beraien bizimodua nolakoa den imajinatzen duena. Horrez gain, “La leyenda de Khaz” sailarekin jarraitzen dugu.

Zeintzuk dira zure azkenetariko lanak?

Fito Cabralesen bizitzari buruzko komikia, “Fito y por supuesto la luna” (2023) eta El Gran Wyomingen bizitzari buruzkoa, “El Gran Wyoming. Mil palos y ninguno al agua” (2024). Biak ere BAO Komikiak argitaletxe bilbotarrak ekotzita.



Argazkia: Wikipedi

Artxanda (251 m.)

MANU COBO

Artxanda mendia Gangurengana mendigunean dago, eta Bilbo eta Txorierrri bereizten dauz. Bere gailurra dentsitate handiz gizatiartua dau, oturuntzetan espezializatutako jatetxez jantzite, batez ere ezkontzak, inguru guztian aisialdirako guneak dauzena. Hori mendigune osoan gertatzen da, oro har, eta urrutirago joan barik, bere punturik garaiena ur-biltegi bategaz, eraikin bategaz eta antena bategaz koroatuta dau, aurreko eraikinari dagokiona.

Ia gailurreraino iristen da Artxandako funikularra, 1915. urtean eraiki zala, bilbotarren aisialdi-eskaera horren ondorioa izanda. Gailurre lez ez deko garrantzi handirik, baie dekon istorio luzea eta Bilborako izan dauen

aisialdie esparru handie, mendi galanta izendatzeko nahikoa da.

Igotzeko aukera nahiko doguz auzotik, zuzenena, Olabeagarantz abiatuko gara ibai albotik. Salbeko zubirarte, zubie hartu eta beste aldean gorako bidea topatuko dogu errez, pista suabe ta ondo markatute hartuko dogu Lezamako trenbide zaharrera heldu arte, haren amaiera. Gorantza ikusiko dogu bidea Artxandaraino bideratuko doskule.

Beste bide bat dekogu Sanin, 18 autobuse hartute, harartino joan eta egin barri dogun bidea hartute, Enekuri igo eta handik mendilerrotik, Artxanda gailurrera. Jeisteko, edo Salbetik edo ta alde zaharrera, pintxo bat jan eta ibai ertzetik, auzora.

ROCKET TAVERN



Plater konbinatuak,
hanburgesak,
oilasko erreak...

FRAI JUAN, 8 • Tel 94 655 68 98

LASTER 

Elektrizitatea
elektronika

- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
- ATEZAIN AUTOMATIKOA
- ARGIZTAPENA
- SARE INFORMATIKOAK

TFNO./FAX: 94 442 46 35
LARRIALDIAK: 657 79 57 04

ZORROTZA KASTREXANA
ERREP. 42. MOD. 58
ZORROTZA 48013



FARMAKOTEGIA
SUSANA
URRITIKOETXEA

Astillero 1. 48013. Zorrotza
Tfno. 94 441 61 46



AGENDA

Mar txoak 8, larunbata

21:00. Gaztetxean.

Kontzertua: HAMLET.

Sarrera: 22€ + gastuak

Mar txoak 14, ostirala

20:00. Gaztetxean.

Dantza ikuskizuna:

MARCO FLORES "Vengo jondo".

Sarrera: 18 €

Mar txoak 15, larunbata

20:00. Gaztetxean.

**Kontzertuak: BLACKHEART + ORION
+ CHILD + WARG**

Sarrera: 12 €

Mar txoak 22, larunbata

20:00. Gaztetxean.

Kontzertua:

MAGGOTS - Slipknot tributoa.

Sarrera: 15/20 €

Mar txoak 28, ostirala

20:00. Gaztetxean.

Kontzertuak:

MODUS OPERANDI + POTATO.

Sarrera: 12/15 €

Mar txoak 29, larunbata

20:00. Gaztetxean.

Kontzertuak: URTZ + LEIZE.

Sarrera: 15 €

Apirilak 3, osteguna

20:00. Gaztetxean.

Kontzertua: REINCIDENTES.

Sarrera: 22 €

Apirilak 10, osteguna

19:00. Auzo etxean.

BILBOKO ZIRKUITUA

Antzerkia:

"Putaren bakarrizketa eroetxean"

Sarrera doan

Apirilak 25, ostirala

20:00. Gaztetxean.

Kontzertua:

ARPAVIEJAS + OBSESION FATAL.

Sarrera: 22 €

Zure elkartearen ekitaldiak ZMeko agendetan (aldizkarian eta webgunean) iragartzeko, zm@zorrotzmorrotz.eus helbidera idatzi.



Euri gorriaren azpian

Asier Serrano Lasa.

Erein. 2024. 164 orrialde.



Paperezko zero zabalera begiratu, eta hodeiek markatzen duten mapa gero eta puztuago eta hurbi-lagoan iraganaren ekaitz perfektu gorria nola lehertuko den konten-platu. Hogeita bost urte atzera, estatuko kolpea hirira heldu zen egunean, ezagutu zuen idazletzatik erretiratua den emakumeak gizon antzezlea. Orduetik, zazpi urteko

diktadura, eta hemezortzi urteko ustezko demokrazia. Orain, emakumea hirira itzuliko da, hiltzorian den gizonaren enkargua betetzera. Emakumeak abandonatu zuen sustraietara barne bidaiak da kontakizuna.

Asier Serranok estilo xehea du, argia, herdoiltzen ez dena. Poesiak zeharkatzen du kontakizuna, narrazio ezin bikainagoa eskaintzeko irakurleari. Istorio bortitza da, lohitsu, baina dena du ederretik. Serranoren uni-bertsuaren ataria da nobela hau, eta sortzen duen lili-raren aurrean ezin dira begiak itxi.



MAMU:

"Bestaldeko ametsen ordaina" 2024



Proposamen interesgarria, estereotipo guztietatik aldentzen dena; baina, zoritxarrez, eta gaur egungo egoera ikusita, entzulego mainstream batentzat ez zuzendua. Pozgarria da eszenan eskarmentu handia duten musikariek honetan jarraitzen dutela ikus-

tea. Orain dela bi urte, hainbat urtez Haxotz taldean aritutako partaideetako batzuek, banandu ostean, Mamu proiektua abiatu zuten beste baxulari batez.

2023an kaleratutako lehenengo lanaren ostean, oraingoan 3 abestiz osaturiko "Bestaldeko ametsen ordaina" izeneko EPa aurkeztera datoz. Iazko udan Errekaldeko Eten Espazio Sonoro estudioetan grabatua, nahastua eta masterizatua izan da Urtzi Izaren (Enkore, Otoi...) eskutik. Euskal musika eszenan oso ohikoak ez diren estiloak jorratzen dituzte, hala nola, post-hardcore eta emoa, baina eskertzen dira haize freskoa dakarten proposamenak, eta euskera hutsean badira askoz hobeago. Diskaren azala Haxotz taldean aritutako Iñaki del Olmoren ardura izan da, benetan deigarria eta, zergatik ez esan, arraroa.

Ezustekoa ez da izan taldea aurretik ezagutzen nuelako, baina eszenan halako aukerak egotea eta, batez ere, aktibo mantentzea pozgarria da musikazaleontzat.



PINTXOTAN

"Kopon" sandwicha



Zailtasun maila: Ertaina.

Prezioa: 2,30 euro.

Osagaiak: Molde ogia, York urdaizapikoa, hegaluzea, arrautza egosia, letxuga, mahonesia eta saltsa berezia (sekretua).

Hasteko, molde ogi xerra bat mahonesarekin igurtzi, eta ganean york urdaizapikoa eta letxuga fresko kurruskaria ipini. Honen ganean bi aldeetatik mehonesarekin igurtzitako bigarren xerra jarri, eta behetik gora, saltsa bereziarekin nahastutako hegaluze birrindua eta arrautz egozizko xerrak ipini. Kontuan izan saltsa bereziak puntutxu pikantea baina leuna daukala. Bukatzeko, aurrekoan bezala, bi aldeetatik mahonesarekin igurtzitako molde ogia ipini eta ganean York urdaiazpiko xerra.

BATZOKIA

Ordutegia:

Asteartetik ostiralera 6:30-22:30

Larunbatetan 7:30-23:00

Igande arratsaldean eta
astelenean itxita

Afariak enkargupean

Clara Campoamor kalea, 4

Telefonoa: 94 405 92 63



**ZORROTZA
HERRIGINTZAN**



ZORROTZAKO BATZOKIA

Erreserbetarako telefonoa: 94 405 92 63
(bazkariak, afariak, urtebetetzeak, ospakizunak...)

Talde, elkarte eta Zorrotzako auzotarrentzako oharra

Alazne Gogoratuz Memorialaren talde antolatzaileak auzoari jakinarazi nahi dio tamalez antolaketa mailako arrazoiengatik bertan behera utzi behar dugula 2017tik ospatu den kultur ekitaldi hau.

Urte hauetan kalitatezko ikuskizunak eskaintzen ahalegindu gara, normalean Zorrotzatik urrun dauden antzoki eta aretoetan eskaintzen diren dantza bezalako adierazpen artistikoak gure auzora hurbilduz.

Pozik gaude honaino iritsi izanagatik, 6 edizio bete ditugulako eta zorrotzarrek eta bisitariek dantzaren magian murgiltzeko aukera izan dutelako prezio ezin hobean. Gainera, Alazne Gogoratuz Memoriala oso erakusleihen preziatua izan da gure inguru hurbileko



ALAZNE GOGORATUZ
MEMORIALAREN
TALDE ANTOLATZAILEA

“ Alazne
Gogoratuz
Memorialaren
talde antolatzaileak
auzoari jakinarazi
nahi dio tamalez
antolaketa mailako
arrazoiengatik
bertan behera
utzi behar dugula
2017tik ospatu den
kultur ekitaldi hau

dantza konpainia eta eskolentzat.

Hori guztia lortzeko, zalantzarik gabe azpimarratu nahi genuke Zorrotzako talde, dendari eta pertsona askok, batez ere Auzo Elkartek eta Merkatarien Elkartek, urte hauetan Memorialari eman dioten laguntza eskerga.

Halaber, Jon Amurizak, lehenengo edizioetan, eta Mikel del Vallek, azkenetan, egindako lan ona nabarmendu nahi dugu, alderdi tekniko eta artistikoei aurre egiten eta abentura hau ederto gidatzen jakin baitute.

Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiegu Bilboko Udaleko Kultura Sailari, hasieratik Kiroldegiaren esparrua lagatzeagatik zein azpiegitura teknikoaz arduratzeagatik, eta Laboral Kutxari, urte hauetan guztietan egin duen ekarpen ekonomikoagatik.

Eskerrik asko eta hurrengora arte.
Zorrotza, 2025eko otsaila..



Taramona

ERAKUSTOKIA ETA SALMENTAK
Zorrotza-Kastrexana errep. 45-57-75
Telefona: 94 442 44 68

TAILERRAK ETA ZERBITZUAK
Zorrotza-Kastrexana errep. 75
Telefona: 94 442 17 12



ESKAINNTZA PROGRESIBOETAN

ARMAZOIA +
KRISTALAK GOI-
GAMAKOAK

265€

Sustapena indarrean +-4,00 esferako eta
-2,00 zilindroko arteko graduzioetarako
RPS: 213/18

ibaretaluxury
O P T I C A

TXOKO FEMINISTA



Unibertsitatean, gure gizarte patriarkalaren eremu guztietan bezala, genero-indarkeriak daude, ikerketek erakusten dutenez. Europa mailako azterlan batek (UniSAFE) ondorioztatu zuen inkestatutako pertsonen % 62k noizbait indarkeria motaren bat jasan duela unibertsitatean, eta indarkeriak kolektibo guztiei eragiten diela (ikasleei, irakasle zein ikertzaileei, adminis-

trazio zein zerbitzuetako langileei...).

Era berean, datuek agerian uzten dute unibertsitatean gero eta gehiago salatzen dela, eta hori positibotzat jotzen da, erakundeen erantzunarekiko kontzientziazio eta konfiantza handiagoa adierazten duelako. Kasu hauei erantzuteko, kolektibo guztiek indarkeriaren inguruan duten prestakuntza hobetu behar da entzuketan, eta adituen laguntza ere indartu behar da.

IRATZE PÉREZ

SALAKETA ARGAZKIA

RENFEko geltokian hainbat zuhaitz mozteko agindua eman du Udalak

Adierazitako zuhaitzak moztu eta inautzea Adif Norte Azpiegituren Mantentze Zuzendaritzak egin zuen, Bilboko Udalak berariaz eskatuta, geltokia ixteko hesia "lehertzen" ari zirelako eta Udala inguru horretan bidegorri bat eraikitzen ari delako. Hala ere, argazkian ikusten den bezala, hesiak ezin hobeto daude eta urte asko zeramatza horrela. Nolanahi ere, ez al zen nahikoa izango hesiaren inguruko zatia moztea hainbat hamarkadatak haritzak zutik mantenduta?



*Etxeko berezitasuna: haragiak eta arrainak
Itsaski-haztegi propioa
Eguneko menua eta menu hitzartua*

Clara Campoamor, 2
48013 Zorrotza

Tel. 94 499 01 30
www.mesonluna.es

Iragar zaitetz

ZM

ZORROTZ MORROTZ
aldizkarian!

Euskara sustatu
Zorrotzan!

Tarifak eta informazioa:
zm@zorrotzmorrotz.eus

Jai-Alai
kafetegia



Abiaro estrata, 12
94 490 12 59



Jaione

Umea izan aurretik, normalean ez ginen mozzorrotzen; baina beti ere jaitsiera ikusi eta giroaz gozaten genuen. Orain umearekin batera dena egiten dugu.



Susana

Jendea asko animatzen da, beraz ahal dugunean bagatoz. Eguraldiaren arabera ere, jende gehiago ala gutxiago egoten dela uste dut.

IRATZE PÉREZ

Inauteria Zorrotzan

Parte hartzen duzu?
Zer iruditzen zaizu?



Maribel

Azken urteotan parte hartu dugu, batez ere umea dela eta. Gainera, auzo osoak parte hartzen duenez, umeei auzo giroa zein polita den erakusteko aukera ematen digu.



Jose

Duela urte asko ez naiz mozzorrotzen; baina, hala ere, kuadrillarekin ateratzen naiz eta, auzo osoak parte hartzen duenez, oso ondo pasatzen dugu.



Vanesa

Kuadrillan mozzorrotzen gara. Auzokan egiten ditugu mozzorroak eta gurdia, eta giroa kristorena dela uste dut!



Zorrotzako labea

Zugandik gertu

Zorrotza Kastrexana errepidea, 34
Tfn. 94 441 09 71
Zorrotza - 48013 BILBO

cafe txinbo

Espezialitateak:
Tapak eta errazioak
Kanapeak



Abaro estrata, 10
Tel. 94 608 85 74

Matrikula zabalik
2024-2025
ikasturtea

The aKdmy

Ingeles eta eskolako laguntza

666017195
the_aKdmy

Zorrotza Kastrexana errepidea, 7

B
BiziFitness

Zure zain gaituz
Zabidea estratako 13an.

CROSS TRAINING
ENTRENAMENDU FUNTZIONALA
TXIKICROSS

Deitu 623 106 531 telefonora





WEBGUNE BERRIA!!

PERSONALIZACIONES
Capricho

OPARI PERFECTUA DUGU ZURETZAT TENEMOS EL REGALO PERFECTO PARA TI

DENDAN, GURE MAITASUN GUZTIAREKIN,
PERTSONALIZATUTAKO PRODUKTUAK

PRODUCTOS PERSONALIZADOS EN TIENDA CON TODO
NUESTRO CARIÑO

SARTU GURE
ONLINE DENDARA



C/Astillero 8 - 48013 Bilbao
personalizacionescapricho@gmail.com
WWW.PERSONALIZACIONESCAPRICHOCOM



2025EKO MAIATZAREN 15ETIK 25ERA

EUSKARALDIA

*Elkar mugituz
egingo dugu*



Zorrotzako
XXVIII.

ipuin

lehiaketa

2025



Oinarriak:



Aurkezteko azken eguna: **apirilak 5**

info gehiago: Aek euskaltegia eta Auzoka Komunitate Zentroa



12 URTETIK BEHERAKOAK

1. SARIA:

60 €ko kultur bonoa

2. SARIA:

30 €ko kultur bonoa

**DBH eta BATXILERGOKO
IKASLEAK**

1. SARIA:

100 €ko kultur bonoa

2. SARIA:

40 €ko kultur bonoa



Parte hartzaile

GUZTIEK

OPARI BANA

izango dute.

Auzokasuna



Laguntzaileak:



Elizkerak

